

## Bruselako Adierazpena

### nazioarteko terminologia-lankidetzaren alde

*Estatu mailan eta nazioarte mailan terminologian diharduten elkarte, sare eta dokumentazio-zentroetako ordezkariak,*

*gogoan hartuz* terminologia giza jarduera guztietan azaltzen dela,

*jakinik* terminologiak, komunikazio espezializatuan informazioa transmititzeko bitarteko ezin hobea izateaz gainera, funtsezko egitekoa betetzen duela kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sendotzeko eta sustatzeko,

*kontuan izanik* profesionalei eta erabakimena duten arduradunei kontzientzia harrarazi behar zaiela terminologiak jakintza komunikatzeko eta transferitzeko tresna gisa duen funtsezko balioaz,

*argi ikusirik* terminologiako profesionalek erabiltzaileen kezka, behar eta igurikimenak barneratu behar dituztela beren lan-metodologian,

*ezagutuz* mundu mailan terminologia-lanean ari diren eragile eta partaide guztien arteko lankidetzaren beharrezkoa dela, bereziki, terminologia-baliabideak era koordinatuan partekatzeko,

*lagundu nahirik* terminologia lantzeko eta zabaltzeko azpiegiturak sendotzeko zereginean,

*dei egiten diete Estatuari eta gobernuei, gobernu arteko erakundeei eta nazioarteko gainerako erakundeei, bai eta hizkuntza-politikan diharduten erakunde guztiei, helburu hauek lortzen lagun dezaten:*

- ◆ ekonomia-taldekatzeko handietan –hala nola Europar Batasunean eta eratzearen AMLEn<sup>11</sup> terminologia-azpiegituren sorrera *bultzatzea*, eta lehendik sortuta dauden terminologia-azpiegiturak indartzea;
- ◆ prestakuntzako, informazioko eta antzeko arloetako programen barnean terminologia-programak ezar daitezkeen *sustatzea*;
- ◆ lankidetzaren metodoak ezartzen *laguntzea*, kontuan harturik lehendik ezarrita dauden lankidetzaren bideak, ekimenak eta proiektuak;
- ◆ industrian eta administrazioan sentsibilizazio-ekimenak *bultzatzea*, terminologia-lanean parte har dezaten;
- ◆ terminologia-lanarentzat finantzaketa-programa bereziak sortzea *sustatzea*, bereziki terminologiak garatzeko eta eguneratzeko;
- ◆ nazioarteko normalizazio-erakundeei *bihotz ematea*, era aktiboan parte har dezaten erakunde arau-emaitzetan (hala nola ISOren CT 37 batzordean: "Terminologia eta bestelako hizkuntza-baliabideak"), mundu osoan terminologiaren harmonizazioan lan egiten duten erakundeetan eta Internet arautzen duten erakundeetan, kultura- eta hizkuntza-ezaugarri guztiek beren lekua izan dezaten;
- ◆ terminologia behar bezala erabiltzeko ekimenak *sustatzea*, bereziki hezkuntza eta espezializazioko maila guztietan, bai unibertsitatean bai unibertsitate kanpo;

- ◆ terminologia eta espezialitate-hizkuntzak *nahitaezko* irakasgai *egitea* itzulpen-karrera guztietan, eta bestelako diziplina guztietan sartzan laguntzea, zientzia eta teknikakoetan, bereziki;
- ◆ hizkuntza bera baina hizkuntza-arau desberdinak dituzten herrialdeen arteko elkarrizketa *bideratzea*, neologia-sorrera eta terminologia-normalizazioa harmonizatzeko, hizkuntza baten aldaerak kontuan hartuz eta lokalizazioaren printzipioak aplikatuz, elkar ulertzeko beharra ahaztu gabe betiere;
- ◆ eleaniztasuna *bultzatzea*, bai hezkuntzan, bai administrazioan eta sektore publikoan;
- ◆ terminologiaren doako zabalkundea eta atzigarritasuna *sustatzea*, gobernuen eta nazioarteko erakundeen agiri ofizialetan agertzen denarena, batez ere;
- ◆ terminologiak gobernuen eta erakundeen politika eta estrategietan duen benetako erabilera eta egitekoa *aztertzea*;
- ◆ kontuan izanik garatze-bidean dauden herrialde gero eta gehiago hasi direla hizkuntza-politikak antolatzen, espezialisten prestakuntza *bermatzea* terminologiaren printzipio eta metodoetan – garapen iraunkorreko testuinguruan– eta espezialista horiek nazioarteko terminologia-jardueretan partaidetza aktiboa izan dezaten bultzatzea.

Bruselan, 2001eko azaroaren 23an

<i>Acaterm</i>	<i>GTW</i>	<i>Rifal</i>
<i>AETER</i>	<i>Hungterm</i>	<i>RITerm</i>
<i>AIT</i>	<i>IITF</i>	<i>Russian Terminology Association</i>
<i>Ass.I.Term</i>	<i>ÍM</i>	<i>Société française de terminologie</i>
<i>Bureau de la traduction</i>	<i>Infoterm</i>	<i>Taalunie</i>
<i>Bulterm</i>	<i>IPC</i>	<i>Termcat</i>
<i>Cindoc</i>	<i>ISRDS</i>	<i>Termigal</i>
<i>CTB</i>	<i>Jiamcatt</i>	<i>Termip</i>
<i>Colterm</i>	<i>Korterm</i>	<i>Termisti</i>
<i>Danterm</i>	<i>LTT</i>	<i>TermNet</i>
<i>Deuterm</i>	<i>NL-Term</i>	<i>TermRom-Moldova</i>
<i>DTT</i>	<i>Nordterm</i>	<i>Termrom-Romania</i>
<i>EAFT / AET</i>	<i>Office de la langue française</i>	<i>TNC</i>
<i>Eafterm</i>	<i>Paraterm</i>	<i>TSK</i>
<i>Eleto</i>	<i>Polterm</i>	<i>Union Latine</i>
<i>Elot</i>	<i>PRO-TLS</i>	<i>Uruterm</i>
<i>ELRA</i>	<i>Radt</i>	<i>Uzei</i>
<i>Estonian Terminology Association</i>	<i>Realiter</i>	<i>Venterm</i>

<sup>[1]</sup> Ameriketako Merkataritza Libreko Esparrua.